

80E/2025 Ebazpena, azaroaren 24koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko Zuzendari Kudeatzarilearena, zeinaren bidez ebazten baita "Euskarazko hedabideen berrikuntza eta digitalizaziorako proiektuetarako 2025eko laguntzen deialdia / Convocatoria de ayudas a proyectos de innovación y digitalización de medios de comunicación en euskera, durante el año 2025".

|                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
|-----------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| ERREFERENTZIA:        | <b>Espedientearen kodea: 0011-4635-2025-000000</b>                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| UNITATE KUDEATZAILEA: | Memoria eta Bizikidetzatza, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua<br>Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua<br>Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua<br>Euskara Sustatzeko Atala<br>Telefonoa: 848 423224<br>Helbidea: C/ Paulino Caballero, 13, 31002 Iruña<br>Posta elektronikoa: sustapena@navarra.es |

| ESPEDIENTEA      |                                                                                                    |
|------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Espediente mota: | Euskarazko hedabideen berrikuntza eta digitalizaziorako proiektuetarako 2025eko laguntzen deialdia |

Euskararen Plangintza eta Sustapenaren Zerbitzuko zuzendariak aldeko txostena aurkeztu du, ebazpen honen bidez euskarazko hedabideen berrikuntza eta digitalizazio proiektuetarako 2025ari dagozkion laguntzak ordaintzea proposatzeko.

Justifikazio-agiriak epe barruan jaso eta ekainaren 3ko 70E/2025 Foru Aginduaren bidez onetsitako deialdian ezarritakoaren arabera berrikusi ondoren, likidazio izaera duen ordainketa egingen da. Horretarako, kontuan hartu dira abuztuaren 28ko 45E/2025 Ebazpena, zeinak dirulaguntza honen diru kopuruak esleitzen dituen, eta irailaren 29ko 56E/2025 Ebazpena, zeinetan Nafar Ikusentzunezkoak SAREN 15.000,00 euroko dirulaguntzaren uko egitea onartu eta zenbateko hori ematen duen bigarren esleipena ebazten duen.

Unitate kudeatzaileak egiaztatu du dirulaguntzaren helburuak bete dituztela, dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritakoarekin bat, bai eta aurkeztutako dokumentuak baliozkoak direla.

Hala, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuak eta Nafarroako Komunitateko Administrazioari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

#### EBAZTEN DUT:

1. Eskatutako laguntzak ordaintzea ondoko taulan ageri diren onuradunei, partida hauen kargura: 30.000,00 euroko dirulaguntza B30002 B3200 4709 334100: "Hedabideetan euskararen erabilera sustatzeko laguntzak" izeneko partidaren kargura eta 65.000,00 euroko dirulaguntza B30002 B3200 7709 334103: "Euskarazko hedabideen

berrikuntzarako eta digitalizaziorako proiektuetarako laguntzak” izeneko partidaren kargura.

| Espediente zenbakia   | IFK       | Izena                                 | Aurrekontu Partida       | Urtea | Zenbatekoa |
|-----------------------|-----------|---------------------------------------|--------------------------|-------|------------|
| 0011-4635-2025-000001 | G71367825 | EUSKALERRIA IRRATIA FUNDAZIOA         | B30002-B3200-4709-334100 | 2025  | 10.800,00  |
| 0011-4635-2025-000001 | G71367825 | EUSKALERRIA IRRATIA FUNDAZIOA         | B30002-B3200-7709-334103 | 2025  | 10.800,00  |
| 0011-4635-2025-000002 | G31267008 | ASOCIACION CULTURAL XORROXIN ELKARTEA | B30002-B3200-7709-334103 | 2025  | 3.393,08   |
| 0011-4635-2025-000003 | B71304455 | ABIAN MEDIA SL                        | B30002-B3200-7709-334103 | 2025  | 13.201,92  |
| 0011-4635-2025-000004 | G31981509 | GUAIXE FUNDAZIOA                      | B30002-B3200-7709-334103 | 2025  | 15.000,00  |
| 0011-4635-2025-000005 | G31595473 | FUNDACION TTIPI-TTAPA                 | B30002-B3200-7709-334103 | 2025  | 15.000,00  |
| 0011-4635-2025-000006 | G31736077 | ASOCIACION CULTURAL MAILOPE           | B30002-B3200-4709-334100 | 2025  | 8.820,00   |
| 0011-4635-2025-000006 | G31736077 | ASOCIACION CULTURAL MAILOPE           | B30002-B3200-7709-334103 | 2025  | 7.605,00   |
| 0011-4635-2025-000007 | A01418565 | NAFAR IKUSENTZUNekoak SA              | B30002-B3200-4709-334100 | 2025  | 10.380,00  |

2. Ebazpen hau eskatzaile bakoitzari jakinaraztea.
3. Ebazpen hau ondorengoei igortzea: Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuan duen Kontu hartzailetza Delegatura, aipaturiko departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Ekonomia Kudeaketarako Ataleko Zentro Kudeatzailera, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Euskarabideko Langileriaren eta Azpiegituren Kudeaketa Administrazioaren Atalera, eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera, behar diren ondorioak izan ditzan.
4. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskararako Departamentuko kontseilariari zuzendua, argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an.

**EUSKARABIDEA- EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA**

Javier Arakama Urriaga